

# Ondarroako Udaleko ingurumen batzordea

## Batzarreko akta

Data: 2011-11-11

Lekua: Ondarroako udala

Bertaratuak: Oier Espilla (batzordeko lehendakaria), Aitor Maruri, Mari Kruz Lekunberri, Irene Zaton, Joseba Zabaleta, Ibai Muñiz, Miren Jone Beitia, Maritere Kaltzakorta, Naia Gartzia, Fernando Salegi

### 1 – AURREKO AKTAREN ONARPENA

- Zuzenketak proposatu dira:
  - Mari Kruz Lekunberri ez dela agertzen bertaratutakoetan
  - Agenda 21ean bi urtean behin lantzen dutela proiektu bat, eta ez urtean bi proiektu.
  - Agenda 21 CEIDAKoek koordinatzen dutela. Beste enpresa batek udal foroa antolatzen laguntzen zuen.
- Zuzenketa hauek eginda, 2011ko urriaren 7ko akta onartu da.

### 2 – EGINDAKO EKINTZEN BALORAZIOA

- **Kontsumo arduratsuari buruzko hitzaldia.**
  - 10 pertsonak kontsumo talde baten sartzeko izena eman zuten. Gehienak gazteak. Beste pertsona batzuk ere interesa aurkeztu dute. Berdura Plazara joaten zirenak ez apuntatzeko aipatu zela, helburua konpetentziarik ez egitea da eta. Orain baserritar bat lortzekotan geratu dira EHNEkoak.
  - Zalantzak agertu dira, ea funtzionatuko duen.
  - Ahalegina egin egin behar dela aipatu da.
  - Ondarroako berdura plaza ere indartu behar dela esan da
    - Mutrikukoa baino indartsuagoa dela, baina 15 urtean asko jaitsi dela
    - Erosle gehienak andrazkoak direla.
    - Plazako baldintzak hobetu behar direla: hotza egoten dela, iluntasuna... Horretarako kristalak ipini behar...
    - Pertsianadun lokal batzuk hutsik: hauetan ezin dira baserritarrak sartu? Lokal bakoitzetik bi lokal atera. Arratsalderen baten baserritarrak ezingo lukete lokal horietan postuak ipini?
    - Plazan dauden saltzaileekin batu beharra.

### 3 – 2011ko EKINTZAK ZEHAZTEN:

- **Gabonetako argiak:**
  - Krisisean bagaude ea ipintzea merezi duen galdetu dute.
  - Ordutegia eta egunak murriztea proposatu da. San Tomas egunetik Errege egunera, gauerdira arte edo. Teknikariei galdetu behar zaie ea posible den 12ak arte ipintzea.
    - Dena dela, ikusi beharra dagoela aurreko urteetan ea gastua asko handitu zen gabonetako argiak ipini zirenean.
  - Dendariekin berba egin behar dela erabakia azaltzeko.
  - Udalbarrietan aipatu behar dela herrian kontsumitu behar dela, baina modu arduratsuan.
  - Auzoen artean pikea dagoela zeinek dauzkan argiak eta zeinek ez

- **Txakur kakak**
  - Jabe gehienek jasotzen dituztela, baina denek ez.
  - Bandoak sarri pasa behar direla.
  - Jendea kontzientziatu beharra dagoela, kalean kakak edukitzeak zer suposatzen duen: infekzioak, usaina...
  - Ordenantza bete arazi behar dela, multak ipinita. Agian lehenengo multak ez kobratu, eta errepikatzen duenari kobratzen hasi.
  - Txakur arriskutsuak lotuta eta bozalarekin eraman behar direla. Legedi berezia dagoela, eta bete arazi beharra dagoela.
  - Bandoa atera zen udan, kaleko animaliei jaten ez emateko esaten.
  - Kotxeko bandoaren audioa hobetu behar da.

#### 4 – 2011ko AURREKONTUAK LANTZEN

- **Balkoietako loreen lehiaketa:**
  - Udaletik eskolei proposatu zitzairen. Eskoletan ez zuten oso egokia ikusi, balkoiak etxeetako kontua direlako. Azkenean zerbait egin zen.
  - Diru hori beste zeozertan erabiltzea proposatu da. Adibidez, erreka eguna edo arbola eguna.
- **Arbola eguna edo erreka eguna**
  - Umeekin arboletan txori habiak ipintzera joan gaitezke. Habiak Diputazioan edo Mankomunazgoan eskatzen ziren lehen.
  - Felix teknikariak herriko arbolen zerrenda zeukan lehen. Arbolen oinetan ipintzeko burdinazko xaflak erosi ei ziren, eta gero ez ziren ipini.
  - Zeinek erabakitzen du arbolen kokapena? Asko ez dira egokiak.
  - Fruta arbolak ipintzea posible da? Jendeak frutak helduak egon aurretik hartuko litzuzke, eta txoriek jan.
  - Arbolak banaka ipini barik, multzoan ipini behar direla. Ekosistema berdinekoak direnak ipini behar direla elkarregaz. Horrela, baso eremuak sortzen joan behar dela. Ondarroak badauka lurrik horretarako? Berriatuarekin tratua egitea proposatu da, baina ahal dela herritik hurbil dagoen leku bat izan behar dela.
  - Erreka eguna egitea proposatu da. Baina umeekin egiteko ez dela erraza: Artibai ibaia Ondarroan oso basatsua eta sakona dela... agian herritarrei zabalik egin beharko litzatekeela deialdia, eta ez eskoletan bakarrik.
  - Zaldu ibaia garbitu behar da.
- **Bizikleta aparkalekuak**
  - Udalak diru bat gordeko du halakoak erosteko (10.000)
  - Aparkaleku bat Ipar Kaletik Pixapera doan igogailuko aterpean ipintzea proposatu da. Ondo ikusi da.
- **Kontzientziazioa**
  - Garrantzitsutzat jo da halako kanpainak egitea.
  - Eskuorri bat ateratzeko 1.000 euro gordeko dira aurrekontuetan.
  - Beste 4.000 euro hitzaldiak edo ikastaroak egiteko.
  - Slow City mugimenduari buruz informazioa lortzeko eskatu da, eta horren inguruan zeozer antolatu. Hor sartzeko zer egin behar den aztertu.
    - Kotxea konpartitzea bultzatzeko zerbait egin behar dela, adibidez link bat ipini udaleko web orrian.

- Bizkaibuseko ordutegiak berrikusi behar dira. Ordu puntetan, autobusak ipini behar direla Bilbora, eta Markinara doazenak mantendu. Oraintxe amaitzen dira kontratuak, beraz, berrikusteko aukera.
- Kontserba fabriketako andrak dira autobusa edo kotxe konpartitua gehien erabiltzen dutenak.
- **Agenda 21**
  - Koordinatzaileak eskatzea proposatu da.
  - Baina CEIDAKoek egiten dute jada lan hori.
  - Beste enpresa batek udal foroa antolatzen laguntzen zuen. Ondo etortzen zen, baina 12.000 euro gastatzea gehiegi ei zen.
  - Umeentzako ikastaroak antolatzea proposatu da: jaboiak zelan egin, irteerak errotetara...
  - Herri mailako Agenda 21ean egin zen azterketa berrikusi behar dugula.
- **Kaleko argiak**
  - Ordu batetik aurrera intentsitatea jaisteko tresna bat ipintzeko aukera dago. 70.000 euro inguru behar dira, eta urte gutxitan amortizatzen da gastua. Ondo ikusi da.
  - Pasatzerakoan argiak pizteko aukera aztertu behar da, eta bitartean itzalita eduki.
  - Berdintasunekoei iritzia eskatu behar zaie. Lehen egin zen ikerketa bat, eta hori bete zen ikusi behar da, eta behar berriak aztertu.
- **Kolunpioak**
  - Monjetako Plazan zibururik ipintzea ez da egokia ikusi, Plaza Gorrian bai.
  - Txomin Agirreko patioan ipini daiteke Monjetako Plazan ipini ez dena.
  - Kolunpioak erosterakoan irizpide ekologikoak sartzeko aukera aztertu: egur mota, ...
  - Adina mugatu behar dela ziburuetan.
  - Plaza Gorrian nagusientzako ariketa egiteko makinak ipini daitezke. Baina gero erabiltzen dira?
  - Herrian aterpeak falta direla, eta kirola egiteko gauza gehiago ere bai: kanastak, adibidez? Kanastek zarata ateratzen dute, eta umeei tokia kentzen diete. Halako jarduerentzako leku egokiak aurkitu behar. Kiroldegiko plaza, adibidez?
  - Kafe Atzea ere hutsik dago.
- **Zaborrari eta mugikortasunari buruzko ikerketak**
  - Herriko arauak aldatzeko ikerketa hauek egin beharra dagoela esan digute hirigintzatik
  - Mugikortasunari buruzko ikerketa egin zen duela urte batzuk, eta hirigintzakoak aztertzen ari dira, gaur egunerako balioko duela uste dutelako.
  - Zaborrari buruz diagnostiko bat egin behar da. Zer sartzen den eta nora eroaten den, zer kostu daukan. Zenbat zabor birziklatzen den jakin behar dugu (aipatu da guk ez dugula birziklatzen, guk banatu egiten dugula).
  - Kontzientziazio kanpainak egin behar dira zaborraren inguruan.

## 5 – BESTERIK

- Hurrengoko gai ordena zehatzagoa izateko eskatu dute.